

Euskararen terminologiaren garapena Terminologiaren Teoria Komunikatiboaren argitan¹

Igone Zabala

Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa saila

UPV/EHU

Laburpena

Terminologiaren Teoria Komunikatiboaren arabera, terminoak hizkuntza naturalen lexikoen parte dira eta, beraz, hiztegi-elementuen balio espezializatuen aktibazioa balio orokorrak azaltzeko erabiltzen diren mekanismo berberen bidez azal daiteke. Lan honetan erakutsi dugu euskara komunikazio-egoera espezializatuera egokitzeko (izan) duen hiztegi-beharrak asetzeko sortutako hiztegi-elementuak eta aktibatutako balio berriak diskurtso-mailan jarduten duten mekanismoen bidez azal daitezkeela. Agerian uzten saiatu gara bereizi behar direla hiztegi-elementuen balio berriak aktibatzeko motibazioa, beste hizkuntza bateko elementuetan egon daitekeena, eta balio berriak aktibatzeko hizkuntzaren barruko mekanismoak. Bukatzeko, diskurtsoan jarduten duten mekanismo horien bitartez garatutako baliabide lexiko espezializatuen adibide batzuk berrikusi, eta aldarrikatu dugu zenbaitetan baztergarriztat hartu badira ere diskurtso-behar berriei erantzuteko gertatutako lexikoiaren garapenaren seinale direla.

Gako-hitzak: terminologia-garapena, balio espezializatuen aktibazioa, lexikoi sortailea, diskurtso espezializatuak

1. Sarrera

Duela gutxi arte hizkuntzalari gehienentzat terminoak erakunde arauemaileek inposatutako unitate artifizialak ziren, hizkuntza naturalaren fenomenoetan parte hartzen ez zutenak eta, beraz, hizkuntzalaritzaren azterketa-interesetatik kanpo geratzen zirenak. Ikuspegi hori ezin hobeto uztartzen zen XX. mendean ia osoan nagusi izan den Terminologiaren Teoria Orokorrekin (TTO) (Wüster, 1979). Izan ere, TTOk, terminologiaren nazioarteko estandarizazio-jarduerari begira formulatu zelarik, “terminoak” eta “hitzak” sistema semiotiko desberdinetako unitatetzat hartzen ditu, eta haren interesa terminoetara mugatzen du. Ildo horretatik, nahita uzten ditu alde batera hizkuntza-azterketaren maila sintaktiko eta diskurtsiboak. Areago, terminoak sinkronikoki tratatzen ditu, eta horien eboluzioa planifikazio, bateratze eta estandarizazioaren bidez kontrolatzeko xede berariazkoa du (Cabr , 2003a). Begi-bistakoa da terminoetara hurbiltzeko ikusmolde hori bateraezina dela gizakien hizkuntza-gaitasuna edota horren erabilera azaltzeko helburua duen Hizkuntzalaritzaren edozein hurbilketarekin.

Wüster (1898-1977) ingeniari austriarra hartu ohi da, hain zuzen, terminologia-zientzien sortzailetzat. Haren doktoretza-tesian, terminologiari buruzko teoria bat garatu zuen *The Machine Tool: An Interlingual Dictionary of basic Concepts* hiztegia (1938) biltzeko prozesuan lortu zuen esperientzian oinarrituta. Terminologia-lana sistematizatzeko zenbait hatsarre ezarri zituen, estandarizazioaren bitartez komunikazio zientifiko-teknikotik anbiguotasuna ezabatzeko xedeari begira. Terminologia diziplina modura ezartzea zen haren helburua, eta terminologafiarako gidalerro praktikoa formulatu zituen terminologia-lanaren oinarriak, gai horretarako hurbilketa teorikoa modura baino areago. Wüster-ek hainbat artikulutan azaldu zituen bere ideiak, baina benetan Helmut Felber-ek bildu zituen oinarri horiek 1979an, Wüster hil ondoren, 1972-1974 urteetako eskoletan hartutako apunteetatik abiatuta (Wüster, 1979). Argitalpen horren ondoren, *General Theory of Terminology* (Terminologiaren Teoria Orokorra: TTO) izena erabiltzen hasi ziren terminologoak eta terminologia alorreko bestelako adituak (Cabr , 2003a). Nolanahi dela ere, TTOn oinarritutako terminologia-zientziak nagusi izan dira XX. mende ia osoan zehar, zeinean garatzen eta hedatzen joan diren. Garapen horretan, lau estadio bereiz daitezke Auger-en (1988) arabera: sorrera (1930-1969), alorraren egituratzea (1960-1975), booma (1975-1985), eta hedapena (1985-...).

Terminologia-zientzien booma eta hedapena bi faktoreren ondorio izan ziren. Batetik, 70eko hamarkadan hizkuntza-plangintzaren diziplina hasi zen garatzen, hizkuntzen arazoak planifikazioaren bitartez konpon zitezkeelako ideiatik abiatuta (Ricento, 2000). Garatutako hizkuntzak idatziak, estandarizatuak eta teknologiaren eta gizartearen aurrerapenen eskaerei egokitzeko kapazak ziren (Fishman, 1968). Hortaz, agerian geratu zen terminologiak hizkuntzen modernizaziorako duen garrantzia, eta terminologia-egitasmoak funtsezkotzat hartzen hasi ziren hizkuntza-plangintzetan. Bestetik, mikroinformatikaren orokortzeak eta hizkuntzen industrien merkatuaren jaiotzak terminologia-datubaseak eta bankuak ekarri

¹ Lan hau Espainako Ekonomia eta Lehiakortasun Ministeritzak (MINECO) finantzatutako PROSAMED (TIN2016-77820-C3-1-R) ikerketa-egitasmoaren barruan kokaturik dago.

zituzten, estandarizatutako terminologia erabiltzaileengana helaraztea nabariki erraztu zutenak. Terminologia-plangintzarako ardura zuten erakundeek terminologiak lantzeraz eta estandarizatzeraz bideratu zituzten haien ahaleginak bi hamarkadan zehar eta, hizkuntzaren prozesamendurako teknologien garapenari esker, testu-corpusetan oinarritutako terminoen bilketa sistematikoa orokortzen joan zen. Biltzen zihozten corpus handiak baliabide paregabeak ziren termino eta kontzeptu berriak erazteko baina, bestalde, agerian utzi zuten terminoen eta kontzeptuen obsoleszentzia, bai eta kontzeptu-sistematan gertatzen diren aldaketak ere (Sager, 1990: 130-132). Bestalde, testu-corpusek posible egin zuten terminologia-bankuetan bildutako eta estandarizatutako terminologiaren ezarpenari buruzko ikerketek ekitea. Ikerketa horietatik etorri ziren, hain zuzen ere, TTOren hatsarreak zalantzan jartzen hasi ziren lehen kritikak, Sozioterminologiaren garapenari bidea ireki ziotenak (Boulanger, 1991). Honela formulatzen zuen Gambier-ek (1987: 320) ikusmolde sozioterminologikoaren beharra:

«Nous croyons que la terminologie, avec ses contradictions, dépend d'une réflexion plus large sur la communication entre spécialistes pris entre l'hyperspécialisation et l'interdisciplinarité, sur la dynamique des «domaines» du savoir et de la production (dialectique de l'intégration et de la division); nous croyons aussi qu'elle se doit de se transformer d'urgence en socio-terminologie, pour comprendre la circulation des termes, les réactions aux néologismes, les résistances devant les listes terminologiques officielles, pour permettre de définir et d'évaluer des politiques d'aménagement terminologique... un terme ne peut pas être vu seulement par rapport à un *système* (adéquation de la désignation, rattachement à un réseau de notions...): il est aussi à voir dans *son fonctionnement*, sur le terrain des contradictions sociales. (Qui utilise quoi ? Qui innove ? Comment et par qui les termes se diffusent-ils ? Comment s'opèrent les réajustements terminologiques, les reformulations ? etc.)»

Sozioterminologiak galdera berriak plazaratu ditu terminoen funtzionamenduari buruz, baina terminologia-plangintzaren testuinguruan kokatutako galderak dira horiek oraindik ere. Temmerman-ek (1997), aldiz, terminoei hizkuntzalaritza kognitiboaren ikuspegitik begiratu die, eta ikuspegi horrek hizkuntza-plangintzaren testuinguruan formulatutako Terminologia klasikoak terminoen esanahiari buruz postulatutako hatsarreak zalantzan jartzera eta Terminologiaren Teoria Soziokognitiboa aldarrikatzera darama Temmerman:

«...it is significant that the underlying motivation for each of the Terminology schools seems to be language planning. For the Prague, the Soviet and the Vienna schools there is a strong orientation towards standardisation. The Vienna school has the conviction that it is possible to influence the naming activities in LSP, and the Canadian centre has the specific aim to secure the survival of the French language in Canada. One can imagine how difficult it is to question the principles and methods of terminological meaning description if the underlying motivation for the claimed scientific schools is language planning, which implies sponsoring by governmental bodies with language political objectives. The outcome is that the scientific study of Terminology is confounded with establishing principles and methods for the pragmatic activity of standardisation.

The new socio-cognitive theory of Terminology emphasises that Terminology should not be uniquely oriented towards standardisation and it questions the validity of objectivism as the theoretical underpinning of terminology.»

Aurreko mendearen bukaeran TTOren izaera preskriptiboaren objektibismoari egin zaizkion kritiketatik abiatuta, Terminologiarako hurbilketa deskriptiboetarako bidea zabaldu da. Terminologiaren Teoria Komunikatiboa (TTK) (Cabrè 1999, 2001) da, behar bada, integratzaileena. Izan ere, Hizkuntzalaritza abiatuta aztertzen ditu terminoak, hizkuntza-unitate, jakintza-unitate eta komunikazio-unitate modura. TTKren abiapuntuko oinarria da terminoak hizkuntza naturaleko unitateak direla eta, beraz, hiztunen gramatikaren lexikoiaren parte direla, beti ere hiztunak espezialitate-alor edo gai jakin batean adituak direnean. Hortaz, TTK teoria lexiko sendoan oinarritzen da, zeinean gramatikaren hiztegi-osagaiek, gramatika-informazioa ez ezik, informazio pragmatiko eta entziklopedikoa ere badituzten. Hizkuntza baten hiztegi-elementuak hasiera batean ez dira ez “hitz” ez “termino”: terminotzat hartzeraz eramatzen gaituen hiztegi-elementuen “balio espezializatua” aktibatzen da hiztun adituek komunikazio-egoera espezializatuetan erabiltzen dituztenean. Beste hitz batzuetan esanda, hitzak eta terminoak erabilera-testuinguru desberdinetan gertatzen diren hiztegi-unitate berberen (edo unitate desberdinen) tasun semantiko desberdinen aktibazioak dira. TTKren abiapuntuko oinarri horrek galdera berriak dakartzio Terminologiaren diziplinari, bai eta erantzunak aurkitzeko eskakizun metodologikoak ere. Nola aktibatzen dute balio espezializatua hizkuntza bateko hiztegi-elementuek? Horixe da, Cabrè-ren iritziz, terminoetarako hurbilketa linguistiko-komunikatiboaren galdera zentrala. Galdera horren eta horren

haritik datozen beste batzuen² erantzunak Hizkuntzalaritzaren ohiko tresna metodologikoak eta ebidentzia empirikoak erabiliz aurkitu behar dira, diziplinari izaera zientifikoa emango bazaio (Temmerman, 2007).

TTKren markoaren barruan, hiztegi-elementuen balio espezializatuen aktibazioa ikertu du Adelstein-ek (2004, 2007), eta postulatu du lexiko espezializatuaren bereizgarria dela esanahien konfigurazio semantikoaren inbrikazioa, komunikazio-egoeraren zenbait faktorek, perpausen faktoreek eta faktore sintaktiko-semantikoek eragiten dutena. Haren hipotesia frogatzeko, *madre* daramaten hiztegi-elementu espezializatuen eta ez-espezializatuen konfigurazio semantikoa aztertu du testu-corpusetan oinarrituta eta Pustejovsky-ren (1995) eredu polisemikoa baliatuz. Pustejovsky-ren ereduak (Lexikoi Sortzailea) postulatu du esanahi lexikoak diskurtsoetan testuinguraturik sortzen direla hiztegi-elementu baten egitura semantikoa osatzen duten elementuetako batzuen aktibazioari esker. Hiztegi-elementuen egitura semantikoa deskribatzeko predikatu-izaerako elementu konposizionalak erabiltzen ditu Pustejovsky-k, eta horren ereduaren egokitze bat erabiliz, Adelstein-ek ondorioztatzen du esanahi espezializatuek bi bereizgarri dituztela: erreferentzia-zehaztasun handiagoa eta informazio semantikoaren inbrikazio handiagoa. Zabalak (2017) *talde* bezalako izen arinen balio orokorrak eta balio espezializatuak aztertu ditu Terminologia diziplinan erabilitako analisia eta Hizkuntzalaritza Orokorra esaten zaion diziplinan koka litekeen analisia uztartuz. Zehazkiago, harremanetan jarri ditu Adelstein-en (2004, 2007) hiztegi-elementuen balio espezializatuen aktibazioaren analisia Simone eta Masini-k (2014) izen arin ez-espezializatuertarako proposatu duten erreferentzialtasun-eskalarekin. Uztartze horri esker, *talde* bezalako izenen balio semantiko ugariak erreferentzia-eskala baten arabera azal daitezkeela frogatu du, balio ez-espezializatuen eta balio espezializatuen arteko *continuum*a agerian utziz: izen arinak > izen sendo ez-espezializatuak > paraterminoak > terminoak. Zabalaren (2017) analisiak agerian uzten du hizkuntzen lexikoiaren antolakuntzaz eta jokoeraz ezagutza sakonagoa lortzen dela hiztegi-elementuen balio espezializatuak eta ez-espezializatuak biak ala biak kontuan hartzen direnean, eta mota bietako balioak azal daitezkeela Hizkuntzalaritza Orokorren tresnak erabiliz: Simone eta Masini-ren erreferentzia-indarra eta haren modulatzailak eta Pustejovsky-ren (1995) lexikoi sortzailearen ereduak.

Hala ere, uste dugu terminologiarako hurbilketa linguistiko teorikoa, Terminologiara heltzeko bideetako bat baino ez da (Cabr , 2000) eta, Cabr -ren (2003b) ildotik, uste dugu ezin dela zalantzan jarri terminologia-plangintza funtsezkoa dela hizkuntza gutxituen normalizazio-plangintzen barruan. Euskarak baditu hainbat erakunde corpus-plangintzaz, eta horren barruan lexikoaren plangintzaz arduratzen direnak: Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko Batzordea eta Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren azpiko Terminologia Batzordea besteak beste. Hizkuntzalaritza diziplina deskriptiboa da, askotan jardun preskriptiboa gutxiesten duena, baina hizkuntzalariok ezin diogu ezikusia egin erakunde arauemaileen jardunak hizkuntzaren erabileretan duen eraginari (Milroy eta Milroy, 1991). Hizkuntzalaritzatik egin diren terminologiaren teoriarako hurbilketa berriak lortzen ari diren ebidentziak eta ondorioak garrantzi handikoak dira garapen prozesuan dagoen euskara bezalako hizkuntza baterako eta, teoriatik harantzago, aplikazioetarako bidea ikusmiran ditugun hizkuntzalariok gure ekarpena egin behar dugu Terminologiaren alorreko ondorio esangarri horiek kontuan har daitezten euskararen lexikoaren garapena aztertzeko eta harmonizatzeke arduratu duten erakundeetan. Bat gatoz Cabr -rekin (1990) aldarrikatzen duenean Hizkuntzalaritzaz hitz egiten denean, “teoriko” eta “aplikatu” lanaren motibazioari dagozkio adjektiboak direla, eta “aplikatu” eta “praktiko” adjektiboak bereizi behar direla Hizkuntzaren Zientziaz hitz egiten denean. Ildo horretatik, uler daiteke Cabr -k (1990: 14) eskaintzen duen Linguistika Aplikatuaren (LA) definizioa:

«...La LA es defineix per tant, al nostre entendre, com una orientaci  de la teoria i la recerca en el conjunt de camps d’estudi integrats en les ci ncies de llenguatge que, partint d’un marc te ric interdisciplinari, t  una finalitat pr ctica (*aplicada*) consistent en la resoluci  de problemes i conflictes que sorgeixen en la praxi ling istica. Aquesta  s per definici  contextual i social, i la seva omnipres ncia en les activitats humans determina la diversitat dels estudis de LA.»

Hain zuzen ere, artikulua honetan hizkuntzaren lexikoa osatzen duten hiztegi-elementuen balio espezializatuak eta ez-espezializatuak kontuan hartzen dituen azterketa teorikotik abiatu gara, eta saiatu gara erakusten azterketa teoriko horrek ondorio erabakigarriak dituela hizkuntzaren arazoak konpontzen

² Terminologiarako hurbilketa (sozio)linguistiko berriek ebatzi behar dituzten galdera horietako batzuk lotuta daude terminoen denominazio- eta kontzeptu-aldakortasunarekin. TTOren oinarri garrantzitsuenetako bat zen kontzeptuen eta terminoen arteko lotura unibokoa, zientziaren eta teknologiararen diziplinetan komunikazioaren anbiguotasuna saihesteko helburua zuena. Hurbilketa sozioterminologikoaren beharra ekarri zuten ebidentzietako bat izan zen, hain zuzen, terminoak diskurtso errealean aztertzen direnean berehala agerian geratzen den aldakortasuna. Teoria berrietan aldakortasuna ikergai garrantzitsuenetako bat bihurtu da.

laguntzeko helburua duen hizkuntza-plangintzaren lan aplikaturako. Bigarren atalean laburbilduko dugun izen arinen terminologizazioaren analisi teorikoak eskaintzen dizkigun ebidentzia enpirikoetatik eta ondorioetatik abiatuko gara, agerian uzten saiatzeko ondorio horiek badituztelako zenbait inplikazio bai motibazio teorikodun hizkuntzalaritzarako bai eta hizkuntzalaritza aplikaturako ere. Hirugarren atalean, euskarazko lexikoaren garapena ulertzeko eta horren normalizazio-jardueretarako inplikazioez arituko gara. Bukatzeko, artikulua honen ondorio garrantzitsuenak laburbilduko ditugu.

2. Izenen erreferentzia-eskala: izen arinen terminologizazioa

Azkaratek eta Perez Gazteluk (2014) “mugakizun bereziko izen-elkartek” deritzetenen bigarren osagai (*mugakizun*) modura erabiltzen diren izenen karakterizazio lexiko- semantikoa egin dute, eta hainbat mota berezi dituzte. Horien artean, multzo-elkarteetan, zati-elkarteetan eta mota-elkarteetan parte hartzen dutenak (adibidez, *talde*, *apur* eta *molde*) Simone eta Masini-k (2009, 2014) aztertu dituzten izen arinetako (*light noun*) batzuen euskal ordaintzat har daitezke. Simone eta Masini-k abiapuntutzat hartu dute hitz-klaseak eskaletan ordena daitezkeen askotariko propietateak dituzten entitate konplexuak direlako ideia, azken aldian ikerketa askoren oinarria ere badena (Sasse, 2001). Simone eta Masini-ren (2009, 2014) arabera, italieraz, frantsesez eta ingelesez N1 *de/of* N2 erako egituretan N1 bezala parte hartzen duten izen arinen (IA) bereizgarria da haien erreferentzia-indarra (EI) baxuagoa dela guztiz erreferentziaduntzat har daitezkeen izenena (ultraizenena) baino. EI baxua dela eta, izen arinak semantikoki asegabeak dira eta, beraz, haien erreferentzia osatzeko, parte hartzen duten egituraren beste elementuaren menpekoak dira. Gainera, Simone eta Masini-k postulatu dute hizkuntzek Elaren modulatzailak dituztela, hots, izenen EIA diskurtso-beharren arabera handitzen edo murrizten duten tresnak. Ildo horretatik, agerian utzi dute testuinguru sintaktiko-diskurtsibo batzuetan izen arin batzuen erreferentzialtasuna ahuldu egiten dela: eduki lexikoa galdu eta esanahi gramatikalagoa hartzen dute, N2 modifikatzeko balio duena. Izen arinen artean erreferentzia-escalak agerian uzteko hainbat test erabili dituzte Simone eta Masini-k, beti ere izen horien balio orokorren (hau da, ez-espezializatu) gainean aplikatzen dituztenak.

Zabalak (2017) test horietako batzuk aplikatu dizkie euskarazko izen arin batzuen balio orokorrei eta balio espezializatuari, agerian uzteko balio horiek guztiek *continuum* bat osatzen dutela, Simone eta Masini-ren (2009, 2014) Elaren modulatzailen bidez azal daitekeena. Zabalaren (2017) arabera, komunikazio-egoera espezializatuetan, Elaren modulatzailak hiztegi-elementuen balio espezializatuak aktibatzen dituzte eta, ondorioz, Adlestein-ek (2004, 2007) balio espezializatuaren bereizgarritzat hartutako ezaugarriak azaleratzen dira: erreferentzia-zehaztasun handiagoa eta informazio semantikoaren inbrikazio handiagoa. Artikulu honetan adibide batzuk eskainiko ditugu, izenen erreferentzia-escalaren funtzionamendua hobeto ulertzen laguntzeko, eta *talde* izenaren balio orokorren eta espezializatuaren adibideak ekarriko ditugu, horiek erreferentzia-escalarekin bat datorren *continuum*a osatzen dutela agerian uzten saiatzeko.

Euskarazko mendekotasunezko hitz elkartu arruntak [N1 N2] eta izen arinak daramatzaten mugakizun bereziko elkartek [N1 LN2] alderatzen baditugu, agerian geratzen da, berehala, horietako bakoitzean mugakizuntzat hartu ohi den bigarren izenak (N2) hitz elkartuaren erreferentziari egiten dion ekarpena maila desberdinekoa dela. N2 erreferentzia sendoko izena denean (1), hitz elkartuaren esanahia antzera mantentzen da mugatzailea (N1) ezabatzen denean, baina erabat aldatzen da N2 izena ezabatzen denean. Mugakizun bereziko elkartearen N2 izen arina denean (2), aldiz, oso antzeko esanahiak lortzen dira bi izenetako edozein ezabatzen denean, izen arinaren esanahia testuingurutik osatzerik badago behintzat.

- (1) Behi-esnea edan dut.
= Esnea edan dut.
≠ *Behia edan dut.
- (2) Ogi zati bat jan dut.
= Ogi jan dut.
≈ Zati bat jan dut.

Areago, Azkaratek eta Perez Gazteluk (2014) karakterizatutako izen arinetako batzuek are erreferentzia ahulagoa erakusten duten balioak ere badituzte, Simone eta Masini-ren (2009, 2014) erreferentzia-indarraren modulatzailen ahultze-lana agerian uzten dutenak. Adibidez, (3a) esaldian *mordo* izen arina da eta, (3b) esaldian, aldiz, erreferentzia-indarra (EI) are ahulduagoa duen *mordo* izenaren zenbatzaile moduko balio gramatikalizatua dugu. Are adibide nabarmenagoa da *pila* izenarena, hiru mailako eskala

erakusten baitu: izen sendoaren balioa (4a), zenbatzaile-balioa (4b), eta are gramatikalizatuagotzat har dezakegun neurri-sintagmaren buruarena (4c).

- (3) a. Mahastira hurbildu, eta *mordo* bana hartu zuten. (izen arina)
- b. Fruta *mordoa* jan dugu. (EI↓) (zenbatzailea)
- (4) a. *Pila* bat egin eta eman sua. (izen sendoa)
- b. Liburu *pila* irakurri d(it)ut aurten. (EI↓) (zenbatzailea)
- c. *Pila bat* liburu irakurri d(it)ut aurten. (EI↓) (neurri-sintagmaren burua)

Nolanahi ere, euskararen erabilera orokorretan izen arinen EIaren ahultzea dakarten modulatzailen lana ez ezik, sendotze-lana ere ikus daiteke, *talde* izenaren kasuan hainbat mailako eskala erakusten duena. Eskalaren hasieran dago *talde* izenaren balio arina (5a), aldaketa semantiko nabaririk gabe *batzuk* zenbatzailearen bidez ordezkatzeari onartzen duena (5b). *Gizatalde* izen elkartu lexikalizatuan, aldiz, benetako izen kolektiboa da *talde* (6a). Izen horrek erreferentzia sendoagoa duenez, testuinguru diskurtsiboak posible egiten duenean, hitz elkartu osoa ordezkatzeko esanahi-aldaketa handirik gabe (6b). *Batzuk* zenbatzailearekin ordezkatzeko denean, aldiz, beste esanahi bat azaleratzen da (6c).

- (5) a. Gizon *talde* bat dago kalean. (izen arina)
- b. ≈ Gizon *batzuk* daude kalean.
- (6) a. *gizatalde* baten suntsipena (EI↑)
- b. *talde* osoaren suntsipena
- c. ≠ gizon *batzuen* suntsipena

Erreferentzia-indarraren modulatzailak urrats bat harantzago doaz N1 *taldearen* osagaitzat ezin uler daitekeenean: *gizataldeak* (6) *gizakiz* osaturik daude, baina *gizarte-taldeak* (7) ez daude *gizartez* osatuta, mota jakin bateko *gizakiz* baizik. Era berean, *futbol* ere ez da *futbol-taldeen* (8) osagaia. (7a) adibidean, *gizarte* jadanik bada izen kolektiboa eta taldearen osagaia litzatekeen argumentua (*gizaki*) maila lexikoan asetzen delarik, Pustejovsky-k (1995) *shadow argument* (S-ARG) deritzon “itzalitako argumentu” bihurtzen da. Konfigurazio semantikoaren balio horrek EIaren igoera dakar: batetik, izen elkartu osoa ordezkatzeko gaitasuna du (7b) eta, bestetik, esanahia gutziz aldatzen da *talde* izena ezabatzen denean (7c).

- (7) a. *gizarte-talde* boteretsuak (EI↑)
- b. ≈ *talde* boteretsuak
- c. ≠ *gizarte* boteretsuak

Kirol-taldeak izendatzeko erabiltzen diren izen elkartuetan (8a), are sendoago egiten da *talde* izenaren erreferentzia. Izan ere, beti ‘gizaki’ modura interpretatzen den itzalitako argumentua ez ezik, taldea ‘xede’ batek bereizten duelarik, are konfigurazio semantiko konplexuagoa lortzen da³. Ikusi besterik ez dago konfigurazio semantiko hori gertatzen denean, gaztelaniaz eta ingelesez beste hiztegi-sarrera bat erabiltzen dela, *equipo* eta *team* hurrenez hurren. Kasu honetan berriro ere ikus dezakegu *futbol-talde* hitz elkartu osoa *talde* izenarekin ordezkatzeko daitekeela, esanahia aldatu gabe (8b), baina erabat esanahi desberdina lortzen dela hitz elkartua N1 mugatzailearekin ordezkatzeko denean (8c).

- (8) a. *futbol-talde* irabazlea (EI↑)
- b. ≈ *talde* irabazlea
- c. ≠ *futbol* irabazlea

Klase bereko izenen artean ere, erreferentzia-eskalak ezar daitezke. Hartara, multzo-elkarteetan parte hartzen duten izenen artean (*aldra, oste, saldo, talde, tanda, tropel, mordo, andana, mordoxka, mulko, pare, pila/pilo, sail, meta* eta *sorta*) erreferentzia arinena duena *multzo* izena da, Azkaratek eta Perez Gazteluk (2014) nabarmentzen dutenez:

³ Pustejovsky-k (1995: 76) Qualia Structure deritzo hiztegi-elementuen esanahiaren funtsezko lau alderdiren errepresentazio egituratuari: CONSTITUTIVE (the relation of an object and its constituent parts), FORMAL (that which distinguishes it within a larger domain), TELIC (its purpose and function) eta AGENTIVE (factors involved in its origin or “bringing it about”). Xedea eta funtzioa motetakoak izaten dira, beraz, TELIC atalean errepresentatzen diren balioak. Qualia egiturak balio du hiztegi-elementu batek esanahi duena hobekien adierazten duten ezaugarriak edo ebentxoak errepresentatzeko. Adibidez, *food* hitza bereizteko balioa [TELIC=eating], eta *novel* eta *dictionary* izenak bereizteko balioak [TELIC=reading] eta [TELIC=consulting] izango dira hurrenez hurren.

«... *Multzo* hitza aurkituko dugu *sail*, *sorta* edo *talde*-ren definizioetan; *talde*, *saldo*-rean... Dena den, *multzo* dugu ia izen hauen guztien definizioetan dugun izena, dirudienez sail honetako izen bakoitzaren balioak izan daitekeena, gutxien markatua eta, horrexegatik, hitz elkartu mota hau izendatzeko aukeratu duguna.»

Baieztape hori bermatzen dute Euskaltzaindiaren Hiztegiak jasotako *talde* izenaren definizioek (Euskaltzaindia, 2012):

- talde:**
- 1 iz. Mota bereko izaki bizidunen *multzoa*[...]
 - 2 iz. Kirol eta joko batzuetan, kopuru jakin bateko jokalar *multzoa*, beste multzo baten aurka jokatzeko duena [...]
 - 3 iz. Gauzen *multzoa* [...]

Hiztegiak bildutako adiera guztiak *talde* izenaren balio orokortzat har ditzakegu, eta erreferentziaren espezifikotasunaren arabera, $3 > 1 > 2$ ordenatu ditzakegu. Interesgarria da adiera horiek konparatzea Euskaltzaindiaren Hiztegi berak *multzo* izenaren sarreran jaso dituenekin:

- multzo:**
- 1 iz. Mota bereko gauzez, bizidun nahiz bizigabeez, osaturiko *bilketa*. Ik. **talde** [...]
 - 2 iz. *Mat.* Ezaugarri jakin batzuk izan ditzaketean, eta beren artean edo beste multzo batzuetako elementuekin halako erlazioak izateko gai diren elementuen *bilketa*, kopuruz amaidun edo amaigabea izan daitekeena [...]

Bi kontu azpimarragarri nabarmen daitezke definizio horietan, hizpide dugun gaiarekin lotuta: batetik, *multzo* izenaren definizioaren genus modura *bilketa* izena erabili dutela eta, bestetik, adiera orokorraz gain Matematika alorreko adiera espezializatua ere jaso dutela, *talde* izenaren definizioan ez bezala. Nolanahi ere, bai *talde* eta bai *multzo* izenek balio espezializatuak aktibatzen dituzte Matematikan, eta balio horiek benetako terminotzat har daitezke. Elhuyarren (2009) Zientzia eta Teknologia Hiztegi Entziklopedikoan bilatu ditugu bi termino horien definizioak:

talde: *Mat.* Multzo batez eta barne-eragiketa batez (batuketa) osatutako *egitura matematikoa*, non eragiketarako propietate hauek betetzen dituen: elkartze-legea, elementu neutroa badu ($a + 0 = 0 + a = a$) eta elementu guztiek simetrikoa dute (a elementua emanik, a' badago, non $a + a' = 0$ den).

multzo: *Mat.* Ezaugarri komun jakin bat edo gehiago dituzten objektuek osatutako *entitatea*. Multzoak osatzen duten objektuei *elementu* deritze. Multzoak adierazteko, letra larriak erabiltzen dira; elementuak adierazteko, berriz, letra xeheak. Adierazteko a dela A multzoaren elementua \in ikurra erabiltzen da, eta honela idazten da: $a \in A$ (a barne A).

Bi terminoen definizioak alderatzen ditugunean, ikus dezakegu balio orokorrek erreferentzia-escalan duten posizioa estrapolatu dela balio espezializatuera. Izan ere, *talde* terminoaren genusaren (*egitura matematikoa*) erreferentzia askoz ere zehatzagoa da *multzo* izenaren definizioaren genusarena (*entitatea*) baino. Bestalde, *multzo* terminoa ageri da *talde* izenaren definizioan, eta hori informazio semantikoaren inbrikazioaren isla da. *Multzo* terminoak erreferentzia-escalan *talde* izena baino beherago egotea bat dator horien balio espezializatuak aktibatzen diren komunikazio-egoeren espezializazio mailarekin. Izan ere, *multzo* terminoa lehen hezkuntzako hasierako mailatan ikasten da eta *talde* terminoa, aldiz, matematika-erazagutza askoz ere espezializatuagoa eskatzen duen aljebra abstraktuaren alorrean ikasten da. Alde handia dago, beraz, bi terminoen espezializazio mailen artean, eta guztiz koherentea da Euskaltzaindiaren Hiztegi bezalako hiztegi orokor batean *multzo* terminoa bai baina *talde* terminoa ez jasotzearekin. Gainerakoan, kasu bietan betetzen dira Adelstein-ek (2004, 2007) balio espezializatueraiko aurreikusitako ezaugarriak: erreferentzia zehatzagoa eta informazio semantikoaren inbrikazio handiagoa balio orokorretan baino. Simone eta Masini-ren (2009, 2014) erreferentzia-escalan balio espezializatuak balio orokor guztiak baino gorago daudela ondoriozta daiteke, beraz.

Terminotzat hartu ditugun *talde* eta *multzo* izenen balioek badituzte aipagarriak diren beste ezaugarri batzuk:

- Semantikoki aseak dira eta, beraz, ez dute beste izenen beharrik beren erreferentzia osatzeko.
- Ondorioz, independenteki defini daitezke espezialitate-alor jakin baten barruan, kasu honetan, Matematikaren alorrean.
- Termino konplexuago batzuen hiperonimoak dira: *multzo ireki*, *multzo bornatu*, *multzo zenbakigarri*, *talde lineal*, *talde abeldar*, *talde trukakor*, ...

Baina *talde* izenak baditu beste balio espezializatu batzuk erreferentzia-eskalan balio orokorren eta terminoen artean kokaturik daudenak. Erdibideko balio espezializatu horiei “paratermino” deritze (Estopà eta Lorente, 2008, 2010). Paraterminoak hiztegi-unitateek komunikazio-egoera jakin batzuetan aktibatzen dituzten balio espezializatuak badira ere, badituzte zenbait ezaugarri terminoetatik bereizten dituztenak:

- Semantikoki asegabeak dira eta, beraz, mugatzaile baten beharra dute beren erreferentzia osatzeko.
- Ezin dira independenteki definitu espezialitate-alar jakin baten barruan.
- Izen edo adjektibo espezializatu batekin konbinaturik, termino monolexiko konplexuak edo termino sintagmatikoak ematen dituzte eta, hain zuzen ere, modu konpositional horretan lortzen dute haien esanahi espezializatuak.

Zabalak (2017) bi konfigurazio semantiko mota bereizi ditu *talde* paraterminoaz osatutako terminoen artean:

- (a) Osagai espezializatuak paraterminoaren argumentua da, alegia, taldea osatzen duten elementuei erreferentzia egiten die: *enpresa-talde* (Ekon.), *elikagai-talde* (Osa. Z.), *fonema-talde* (Ling.)...
- (b) Taldea osatzen duten elementuak adierazten duen argumentua, itzalitako argumentua da (S-ARG), termino konplexuan gauzatzen ez dena: *arrisku-talde* (Osa. Z.), *adin-talde* (Osa. Z.; Giz. Z.), *talde etniko* (Giz. Z.), *funtzio-talde* (Kim.), *hidroxilo talde* (Kim.) ...

Laburbilduz, erakutsi dugu Simone eta Masini-ren (2009, 2014) erreferentzia-eskala baliagarria dela izen arin motak eta balioak erreferentzia-indarraren arabera ordenatzeko ez ezik, hiztegi-elementuen balio espezializatuak eta ez-espezializatuak ordenatzeko ere. Hizkuntzalari horien arabera hizkuntzek diskurtsoen beharren arabera izenen erreferentzia-indarra modulatzeko dituzten mekanismoek azaltzen dute *talde* bezalako izenek komunikazio-testuinguruaren arabera askotariko balioak aktibatzen duten gaitasuna, balio arinetatik hasi eta balio espezializatuetaraino: izen arinak > sendotutako izen orokorrak > paraterminoak > terminoak. Balio espezializatuak eta balio orokorren konfigurazio semantikoen alderaketa baliagarria izan da agerian uzteko Adelstein-ek (2004, 2007) egindako hiztegi-elementuen balio espezializatuak karakterizazioa izen arinen terminologizazio prozesuetan ere betetzen dela. Azkenik, balio espezializatuak espezializazio maila desberdinetako testuinguruetan aktibatzen dituzten izenek ere erreferentzia-eskalan posizio desberdinak betetzen dituztela ikusi dugu *multzo* eta *talde* terminoak alderatu ditugunean eta, beraz, Adelstein-ek deskribatu dituen balio espezializatuak ezaugarriak maila desberdinetan betetzen dituztela.

Erakutsi dugun *talde* erako izenen balioen argazkiak edozein hizkuntzaren lexikoiaren antolakuntza polisemikoa islatzen du, eta frogatzen du hiztegi-elementuen balio orokorrak eta espezializazio maila desberdinetako balioak komunikazio-egoera desberdinetan gertatzen diren diskurtsoetan testuinguratuak aktibatzen direla, hizkuntza naturalen mekanismoak erabiliz. Balio espezializatuak baina, ez dituzte aktibatzen hizkuntza bateko edozein motatako hiztunek: espezialitate-alar jakin bateko adituek aktibatzen dituzte alor horretako balio espezializatuak espezialitate-alar horretako gaiez ari direnean komunikazio-egoera espezializatuetan. Lexikografoek hiztegi orokorretan hiztegi-elementuen balio edo adiera orokorrak islatu ohi dituzte, ohikoa bada ere espezializazio maila baxuko zenbait balio espezializatu ere jasotzea espezialitate-alorraren markarekin lagunduta (*Mat.*, *Bio*...). Hiztegi terminologikoak, aldiz, espezialitate-alorren arabera antolatu ohi dira eta, beraz, hiztegi-elementuek espezialitate-alar bateko komunikazio-egoeretan aktibatzen dituzten balioak baino ez dituzte jasotzen, balio orokorrak alde batera utzita. Hortaz, mota desberdinetako hiztegiek hizkuntzaren lexikoiaren antolakuntzaren zati bat baino ez dute erakusten.

3. Euskararen lexiko espezializatuaren garapena TTKren argitan

Jakina da hizkuntzak eten gabe aldatzen ari direla, eta lexikoa dela hizkuntza-sistemaren modulurik aldakorrena: hiztegi elementu berriak sortzen dira, hizkuntzak jadanik dituen elementuen adiera berriak aktibatzen dira edota hiztunek zenbait hiztegi-elementu edo zenbait adiera erabiltzeari uzten diete. Lexikoiaren garapena are nabariagoa da euskara bezala normalizazio prozesuan murgilduta dauden hizkuntzen kasuan. Izan ere, hizkuntza gutxiak biziberritzeko funtsezkoa da erabilera-alar berriak irabaztea, eta alor berrietan erabiltzeak nahitaez dakar hiztegia garatu beharra. Estatus soziolinguistikogorena duten hizkuntzetan bezala, hizkuntza gutxiuetan ere, lexikoa garatzeko bi bide daude: hiztegi-

elementu berriez aberastea hizkuntzaren lexikoa edota lexikoian jadanik dauden hiztegi-elementuen balio berriak aktibatzea, hiztegi-sarrera horien polisemia gradua handitzea dakarrena.

Hizkuntza baten lexikoa elementu berriez aberasteko hiru bide daude: mailegutza (*gene, terapia, molekula, bektore...*), hizkuntzaren lexikoian jadanik dauden elementuak (hitzak edo morfema lotuak) konbinatuz hiztegi-elementu konplexu berriak sortzea (*ur-ingurune, ebazpen, elkarreragingarritasun, uhin-maiztasun, ur gazte*) edo hizkuntzaren lexikoian dauden elementuak mailegatutako elementuekin konbinatzea elementu berriak sortzeko (*gene-adierazpen, zelula-mintz, funtzionaltasun, abiadura bektore...*). Hizkuntzaren lexikoian jadanik dauden elementuen balio berriak aktibatzekeo prozesuari semantika-aldaketa ere esaten zaio. Semantika-aldaketarako motibazioa beste hizkuntzetan lehenago gertatutako aldaketa semantikoak direnean (*zulo beltz, x ardatz, hidrogeno-zubi...*), kalko semantiko ere esaten zaio hizkuntzen arteko esanahi-transferentzia prozesuari. Nolanahi ere, hizkuntza batetik beste baterako esanahi-transferentzia horiek, xede-hizkuntzaren barrutik begiratuta, metafora-prozesuen ondorio dira. Hizkuntzalaritza Kognitiboak hizkuntza naturalen oinarritzko eragiketatzat hartzen ditu metafora-prozesuak eta, ildo horretatik, motibazioa beste hizkuntza batzuetako elementu lexikoetan egon badaiteke ere, semantika-aldaketa hizkuntza hartzailearen sistemaren barruan gertatzen dela ere uler daiteke. Hori da erakusten saiatu garena bigarren atalean *talde* eta *multzo* izenen terminologizazio prozesuak azaldu ditugunean: motibazioa beste hizkuntza batzuetako *grupo* eta *conjunto* terminoak badira ere, euskal hiztegi-elementuen semantika-aldaketak euskararen sistemaren barruko EIaren modulatzailiek azal ditzakete. Hizkuntza arteko motibazioa eta xede-hizkuntzaren semantika-aldaketa prozesuak bereizi behar direla agerian geratzen da iturri-hizkuntzan gertatutako metafora-prozesua ez denean egokia ordain zuzena izan litekeen xede-hizkuntzaren hiztegi-sarrerarako. Adibidez, *dorsal medioceánica* terminoaren euskal ordaina bilatzeko orduan, *bizkar* izenak ez zuen metaforizaziorako bide egokia eskaintzen alorreko adituen arabera, eta *gandor* izena aukeratu zen ozeanoaren erdian dagoen mendi-katearen itxura irudikatzekeo: *ozeanoaren erdiko gandorra*.

Hizkuntzaren erabilera berriek lexikoaren konfigurazioan dituzten ondorioetako batzuk ikus daitezke Azkaratek eta Perez Gazteluk (2014: 41-43) multzo-elkarteei buruz ari direnean deskribatzen dituzten zenbait joera eta aldaketatan:

«... Era berean, definizioak erkatuz, beste ondorio honetara ere irits gaitezke: multzo-izen hauen artean hiru sail nagusi bereiz daitezke.

- a) Nolabait esateko [+biziduna] ezaugarria barnean daramatenak, bizidunetz aritzeko besterik ez darabiltzagunak; bestela esan, hautu-murritzapena dutenak: elkarketan, ezkerreko osagaiak biziduna izan behar du. Alegia, *izaki, animalia, bizidun* ... hitzak hiztegi-gileek definizioetan erabiltzen dituztenez gero, espero dezakegu hauen bidez osatutako izen elkartuko mugatzailea [+biziduna] izatea [...] *aldra, oste, saldo, talde, tanda, tropel* [...]
- b) Erreferentziaren aldetik zabalagoak direnak; bai bizidunetz bai bizigabeez aritzeko darabiltzagunak [...] *andana, mordo, multzo, pare, pila, sail, mulko* [...]. Horrek esan nahi du izen hauek mugakizun direnean, bai mugatzaile bizidunak bai bizigabeak aukera ditzaketela [...]
- c) *sorta* (eta *buket*) genuke hirugarren: hiztegien arabera izen honekin mugatzaile gisa elkartzen dugun izena bizigabea (landareak batez ere) izan ohi da.

Beste kontu bat da azpisail bakoitzeko izenen artean egon daitezkeen ñabardurak. Adibidez, *talde* eta *saldo* edo *samalda* erkatuz gero, badirudi azkenok multzo handiagoa adierazten dutela lehenak baino, eta beste horrenbeste esan dezakegu *multzo/mordo* bikoteaz. *Tropel*-ek, berriz, multzo handi eta nahasia adierazten bide du. Baina, itxura guztien arabera, hitz-elkarketan eraginik ez duten ñabardura semantikoak dira.»

Goiko baieztapen horietan ikus daiteke Azkaratek eta Perez Gazteluk aztertu duten corpusetik abiatuta multzo-elkarteetan parte hartzen duten izenen konfigurazio semantikoei buruz lortutako argazkia. Hizkuntzalari horiek garrantzi handiagotzat hartzen dituzte tasun semantiko batzuk beste batzuk baino. Nabardura semantikoen garrantziaren mailakatze hori, baina, oso lotuta dago ikuspuntu estrukturalistatik egindako deskripzio sinkronikoetan erabili ohi diren analisi-moduekin, lexikoaren garapenaren dinamiketan jokoan sartzen diren prozesu eta diskurtso-eragiketekin baino. Izan ere, hasieran egindako uneko argazki horren bilakaera ikus daiteke aurrerago Azkaratek eta Perez Gazteluk egiten dituzten beste baieztapen batzuetan.

«...Eta horrekin lotuta, ez genuke bazterrean utzi beharko hemen bildu ditugun izenetako batzuk esanahia zabaltzen joan direla eta horrek elkarketan ere ondorio zuzena (izan) duela. Esate baterako, *eli*, abereez; *mordo* eta *mulko* batez ere mahatsaz; *parrastada* batez ere barreia daitezkeen gaiez (isurkariak, aleak...); *sail* alorraz, lur-eremuaz eta honenbestez, nekazaritzako gaiez; *sorta* batez ere landareez... aritzeko

generabilitzarak beste esparru batzuetan erabiltzeak ekarri du era berean elkarketan ere jokabide malguagoa izatea. Alegia, osagai horren eta bere ezkerrekoaren artean zegokeen hautu-murritzapena lasaitu eta beste era batzuetako osagaiak ere onartzen ditu bere ezkerretara. Nolanahi dela ere, ez dirudi gehientsuenek lehenagotik gisa horretako murritzapenik izan dutenik: *aldra, andana, multzo, pila, saldo, samalda, talde...*[...]

Gaurko ikuspegitik behintzat harrigarri samarra gertatzen da izen bizigabeak (*talde*-ren ezkerreko osagaiak izatea; *ur*, gainera, kontagaitza da. [...])

Baina, guztiarekin ere, talde mugakizunaren ezkerretara mugatzaile bizigabeak dituzten adibide gehiago ere baditugu: *erromatiar hizkera, finantza, guda, kultura, makilkada, ontzi, politika, txango...*»

Hizkuntza baten lexikoiaaren konfigurazioa, uneko analisi morfologikoetan aztertu ohi dena, komunikazio-egoera desberdinetan ekoiztutako diskurtsoetan aktibatutako balioen kristaltzea da. Zabalak (2017) azpimarratu duen bezala, mugakizun bereziko hitz elkartuetan parte hartzen duten zenbait izen arinek (*aldra, oste, tanda, andana, mordoxka, mulko, pare, pila / pilo, meta, koskor/kosko, parte, puska / pusketa, zati, apur, pitin / pixka, poxi, puska, tanta / tanto, era, gisa, manera, molde, suerte, tailu*) inolako balio espezializaturik aktibatu ez badute ere, beste batzuek (*talde, hondar, sorta...*) balio espezializatu ugari aktibatu dituzte hainbat espezialitate-alorretan eta, beste batzuek, aldiz, (*tropel, mota*) bakarrik aktibatu dute balio espezializatu bat alor jakin batean⁴. Areago, kasu batzuetan balio espezializatuak espezialitate-alor askotan aktibatu izanak ekarri du horietako izen bakarrik askotariko balioak edukitzea beste hizkuntza batzuetan (*sorta* ‘haz, remesa, pliego, juego’ Fis., Mat., Eko., Zuz., Indus...) baina, beste kasu batzuetan, ordain bakarra dago espezialitate-alor eta balio guztietarako (*talde* ‘grupo’ Eko., Kim., Med., Giz.Z., Mat., Ling., Bio.). Balio berri horien guztien aktibazioak agerian uzten du hiztegiaren garapenerako motibazioa eta garapenerako mekanismoak bereizteko beharra. Izan ere, ordaintzat har daitezkeen hizkuntza desberdinetako hiztegi-sarrerren konfigurazioak alderatzen ditugunean, xede-hizkuntzaren prozesuen nolabaiteko beregaintasuna agerian uzten duten asimetria nabarmenak ikus daitezke.

Hizkuntza komunikazio-egoera berrietan erabiltzearen lehen ondorioa da diskurtso-gai berriak tratatzen direla eta, horren ondorioz, hizkuntzaren lexikoian dauden elementu batzuk lehen ez bezalako elementuei aplikatzen zaizkiela, adibidez, *sorta* eta *mordo mordo-laginketa geruzatu* ‘muestreo estratificado de conglomerados’ Mat. edo *argi-sorta* ‘haz luminoso’, *elektroi-sorta* ‘haz electrónico’ Fis. Konbinazio berriek lehenagoko azterketa batean antzeman den joera semantiko bati eragiten badiote, adibidez, [+/-bizidun] ezaugarriari *talde* izenaren mugatzaileen kasuan, sistema aldatu dela pentsa dezakegu, baina artikulu honetan defenditu dugun bidetik, aldiz, ondoriozta daiteke benetan hizkuntza-sistemaren mekanismoek (adibidez, EIaren modulatzailerik) eragindako balio berrien aktibazioen ondorioz mota jakin bateko hiztegi-elementuen “errolan” proportzio-aldaketak gertatu direla. Beste hitz batzuetan esanda, morfologia lexikoaren alorrean egin ohi diren nalisiek hizkuntza jakin bateko diskurtso mota desberdinetan aktibatu diren hiztegi-elementuen balioak deskribatzen dituzte, alegia, diskurtso-prozesuen emaitza. Baina balio horiek eragiten dituzten prozesuak diskurtso mailako eskakizunek eta mekanismoek azaltzen dituzte.

Diskurtso espezializatuetan gertatzen diren eragiketa garrantzitsuenetako bat da nominalizazioa, haren bidez lortzen den trinkotze eta abstrakzioari esker, kontzeptuak objektuak bailiran trata baitaitezke diskurtsoetan (Iturrioz, 2000). Euskara askotariko diskurtso espezializatueterako erabiltzeak ekarri du jadanik euskararen lexikoian zeunden atzizki izen-sortzaileek⁵ emankortasuna nabariki handitzea. Hain zuzen ere, espezialitate-alor desberdinetako diskurtsoetan gai desberdinak tratatzen direnez, atzizki izen-sortzaileen emankortasuna ere desberdina da espezialitate-eremu desberdinetan. Jokaera horrek atzizki izen-sortzaileak erregistro-markatzaile ezin hobeak bihurtzen ditu, hainbat hizkuntzari buruz egin diren ikerketek agerian utzi duten bezala (Gallegos, 2003; Guz, 2009; San Martín et al., 2010). Behinola ez bezalako den adizetiko izenen emankortasun hori beste hizkuntza batzuekiko mendekotasuntzat hartu izan da zenbaitetan, eta askotan hiztegietan jaso ere ez dira egiten diskurtso espezializatuetan sortutako euskarazko eratorri horietako asko (Lersundi eta al., 2008). Honelakoetan ere une batean euskarak zituen eratorrien analisi morfologikoak ordura arteko diskurtso-beharrek eraginda aktibatutako atzizkien balioen berri baino ez digu ematen; diskurtso berrien beharrek eragindako hiztegi-sorkuntzaren eragileak eta

⁴ Izen arinek aktibatutako balio espezializatuak Euskal term terminologia-banku publikotik atera ditugu.

⁵ Adizetik ekintza eta ondorio izenak sortzeko gutxienez 11 atzizki ditu euskarak (-*dura*, -*era*, -*keta*, -*kunde*, -*kuntza*, -*men*, -*mendu*, -*pen*, -*tza*, -*tze* eta -*zio*), baita \emptyset atzizkia ere (*eduki*, *ebaki*). Egilea, kausa, objektua/ produktua adierazten duten adizetiko izenak sortzeko beste hainbat atzizki emankor ditugu (-*le*/ -*tzaile*, -*gailu*, -*garri*, -*kin*, -*kari*, -*kizun*). Bestalde, adjektiboetatik izen abstraktuak sortzeko ere sistema sendoa eta ezin emankorragoa du euskarak (-*tasun*, -*tate*, -*ezia*, -*(t)zia*, -*keria*).

mekanismoak ulertzeko, aldiz, ezinbestekoak dira azterketa morfopragmatikoak (Zabala eta Elordui, 2010).

Diskurtso espezializatuetan errealitatearen sailkapen sistematiko eta zehatzagoa egiten da diskurtso orokorretan baino. Sailkapenak egin ahal izateko, hiztegi-elementu gehiago behar dira, eta sailkapenaren sistematikotasuna terminoen egitura morfologikoaren sistematikotasunean islatu ohi denez, hizkuntza-sistemaren argazki estatikoan oinarritzen diren analisiak maiz baztergarriztat jotzen dituzten hiztegi-elementuen balioak aktibatzen dira. Ideia hobeto ulertzeko, beste lan batzuetan sakonkiago aztertu ditugun bi adibide emango ditugu. Sailkapen-beharrak direla eta, eta *bakar* osagaia duten adjektibo elkartu exozentrikoen patroia morfologikoari jarraiki, *anitz* osagaia dutenak ere aktibatu dira: *bizidun zelulabakar / bizidun zelulanitz*. Euskararen normalizazio-ekimenetan erantzukizuna dute zenbait akademikok horrelako hiztegi-elementuak baztergarriztat hartu izan dituztelarik, Zabalak (2003a) defenditu du euskararen sisteman bazeuden hiztegi-elementuak eta konbinazio-arauak erabiliz sortu direla horrelako adjektibo elkartuak komunikazio-egoera berrietan kokatutako diskurtsoen beharrei erantzuteko eta, beraz, euskararen “ajeen” erakusle gabe, garapenaren osasunaren seinale direla. Beste kasu bat da eremu semantiko bateko hiztegi-elementuetarako, antzeko atzizkiak erabiltzea. Adibidez, materialen jokaera desberdinen sailkapenaren testuinguruan, *malgu*, *zurrun* eta *hauskor* adjektiboen testuinguruan, erraz uler daiteke behar diren kategoriak *deformakor* eta *erresistikor* izatea, *hauskor* adjektibo eratorria baita hiztegi-elementu berriak sistematikoki sortzeko patroia eskaintzen duena (Zabala eta Elordui, 2006).

Pustejovsky-ren lexiko sortzailearen hiztegi-elementuen eredu polisemikoan, hiztegi-elementuek diskurtso jakin batzuen testuinguruan esanahi lexiko jakin batzuk sortzen dituztenean, hiztegi-sarreraren egitura semantikoa osatzen duten elementuetako batzuk aktibatzen dituzte, eta beste batzuk aktibatu gabe uzten dituzte. Testuinguruaren araberrako aktibazio horrek eragina du hiztegi-elementu horiek sintaxian islatzeko orduan. Mintzagai desberdinei aplikatzen zaizkien hiztegi-sarrerak aditzak direnean, aktibatzen diren argumentuen arabera, gerta daiteke aditzok lehenago erakutsi ez dituzten balentziak azalartzea. Hori da, adibidez, biologia molekularri eta genetikari buruzko diskurtsoetan euskara erabiltzen hasi denetik *adierazi* aditzaren kasuan gertatu dena. Hiztegi orokorretan, *adierazi* aditza *du* eta *dio* laguntzaileekin jokatzen dela jasotzen da corpusetan nagusitzen diren erabileretan oinarrituta, baina geneek proteinak sintetizatzen prozesuari erreferentzia egiteko *adierazi* aditza erabiltzeak berez dakar *x genea adierazi da* moduko erabilera iragangaitza, geneek berezko kausalitatea baitute beren burua adierazteko. Egitura horiek *zuhaitza loratu da* edo *txoria lumatu da* egituren antzekoak dira, eta alorreko adituei maiz zuzendu bazaizkie ere, erabat espero izatekoak dira euskararen sisteman (Zabala, 2003b). Euskararen garapen eta normalizazioari lagundu nahi badiogu, *adierazi* aditzaren erabilera berria jaso behar da hiztegiaren, beharrezkoa iritziz gero, *Bio.* espezialitate-markarekin jaso ere. Nolanahi ere, biologia molekularren alorreko erabilera bada berria, baina ez ordea *adierazi* aditzaren erregimen iragangaitza, Orotariko Euskal Hiztegiaren jasota baitago seigarren adieran erabilera iragangaitza Jaungoikoa subjektu modura duena: «6. (Aux. intrans.). Manifestarse, pronunciarse. **Jainkoa bereala adierazo zan.* Lard 95.». Ondorio modura esan dezakegu hiztegiaren jasota daudela hiztegi-elementuek hizkuntzaren historiaren une jakin batera arte aktibatu dituzten balioak eta horiek islatu dituzten konfigurazio sintaktikoak. Lexikoiaren uneko konfigurazioaren argazki hori ez da erabili behar konfigurazio semantiko eta sintaktiko berriak oztopatzeko, berrikuntzak ezinbestekoak baitira hizkuntzaren garapenerako.

Laburbilduz, hizkuntza bateko une jakin bateko hiztegiaren konfigurazioa komunikazio-egoera desberdinetan ekoitzi diren diskurtsoen beharrek eraginganda aktibatu diren lexikoiaren elementuen balioen isla da. Komunikazio-egoera berriek nahitaez eskatzen dituzte hiztegi-elementu berriak sortzea edota lexikoian jadanik badauden hiztegi-elementuen balio berriak aktibatzea. Balio berri horiek hizkuntzek diskurtso-beharrei erantzuteko dituzten mekanismoen bitartez aktibatzen dira, eta hizkuntzaren osasunaren seinale dira. Bereizi beharrekoak dira, batetik, hiztegi-elementu baten balio berriak aktibatzekeko motibazioa, beste hizkuntza batean egon daitekeena, eta, bestetik, balio berriak aktibatzekeko erabiltzen diren mekanismoak beraiek lehenago hiztegi-elementuak sortzeko erabili diren berberak izan ohi direnak.

4. Ondorioak

Terminologiarako hurbilketa linguistiko-komunikatiboak abiapuntutzat hartzen duen oinarria da terminoak hizkuntza naturalen lexikoiaren parte direla. Ildo horretatik, lexikoiaren eredu polisemiko eta sortzaile batek azaltzen du hobekien hizkuntzen hiztegiaren funtzionamendua: hiztegi-elementuek haien konfigurazio semantikoen balio batzuk edo beste batzuk aktibatzen dituzte diskurtso mota desberdinen

beharren arabera. Aktibatzen dituzten balio horietako batzuk espezializatutzat hartzen ditugu, diskurtso espezializatuaren bereizgarriak direlako, eta horrela aktibatutako hiztegi-elementuei termino deritzegu. Onarpen horrek dakarren ondorioetako bat da hiztegi-sarreraren balio orokorren eta balio espezializatuaren aktibazioan parte hartzen duten mekanismoak berberak izan beharko direla eta, beraz, analisi-tresna berberak erabiliz azaldu beharko direla. Ildo horretatik, lan honetan erakutsi dugu diskurtsoan jarduten duten Simone eta Masini-ren (2009, 2012) izenen erreferentzia-indarraren modulatuzaileak baliagarriak direla izen arin motak eta balioak erreferentzia-indarraren arabera ordenatzeko ez ezik, hiztegi-elementuen balio espezializatuak eta ez-espezializatuak eskala horretan ordenatzeko ere. Gainera, ikusi dugu mekanismo horien emaitza diren balio espezializatuak eta orokorrak alderatzen ditugunean, Adelstein-ek (2004, 2007) deskribatutako balio espezializatuaren ezaugarriak betetzen direla: erreferentzia zehatzagoa eta eduki semantikoen inbrikazio handiagoa. Adibide modura erabili dugun azterketa horretatik, hizkuntzalaritza teorikorako eta hizkuntzen normalizazioari begirako hizkuntzalaritza aplikaturako ondorio batzuk atera ditugu:

- Hizkuntzen lexikoiaren antolakuntzaz eta jokaeraz ezagutza sakonagoa lortzen da hiztegi-elementuen balio orokorrak eta balio espezializatuak biak ala biak kontuan hartzen direnean, eta Hizkuntzalaritzan erabiltzen diren analisi-tresnak erabiltzen direnean.
- Hizkuntza bateko une jakin bateko lexikoiaren konfigurazioa hizkuntza hori erabili den komunikazio-egoera desberdinetan ekoiztutako diskurtsoetan aktibatu diren balioen argazkia da. Komunikazio-egoera berriek nahitaez eskatzen dute hiztegi-elementu berriak eta balio semantiko berriak aktibatzea eta, beraz, hizkuntzaren lexikoiaren konfigurazioa aldatzen da hizkuntza eremu berrietan erabiltzen denean.
- Hiztegi-elementuen balio berrien analisisetan faktore diskurtsiboak eta morfopragmatikoak hartu behar dira kontuan, hizkuntza gutxituen garapenari lagunduko bazaio. Izan ere, ohiko analisi morfologiko hutsek lexikoiaren une bateko konfigurazioa deskriba dezakete, baina ezin ikus ditzakete lexikoaren garapenaren dinamika azaltzen duten motibazio eta mekanismo diskurtsiboak.

Bibliografia

Adelstein, A. (2004): *Unidad léxica y valor especializado. Estado de la cuestión y observaciones sobre su representación*. Master-tesia. Serie Tesis 5, Institut Universitari de Lingüística Aplicada, Barcelona.

Adelstein, A. (2007): *Unidad léxica y significado especializado: modelo de representación a partir del nombre relacional madre*. Doktoretza-tesia, Institut Universitari de Lingüística Aplicada, Barcelona.

Auger, P. (1988): «La terminologie au Québec et dans le monde, de la naissance à la maturité» in *Actes du sixième colloque OLF-STQ de terminologie. L'ère nouvelle de la terminologie*, Gouvernement de Québec, Quebec.

Azkarate, M. eta Perez Gaztelu, E. (2014): *Hitz-elkarketa/2. LEF Batzordearen emaitza*, Euskaltzaindia, Bilbao.

Boulanger, J.-C. (1991): «Une lecture socio-culturelle de la terminologie», *Cahiers de Linguistique Sociale*, **18**, 13-30.

Cabré, M. T. (1990): «La lingüística aplicada avui». in *La lingüística aplicada. Noves perspectives/noves professions/noves orientacions*. Ciclo de Conferències 9, Publicacions Universitat de Barcelona, Barcelona, 11-29.

Cabré, M. T. (1999): *La terminología: representación y comunicación*, Institut Universitari de Lingüística Aplicada, Universitat Pompeu Fabra, Barcelona.

Cabré, M. T. (2000): «Terminologie et linguistique: la théorie des portes», *Terminologies nouvelles. Terminologie et diversité culturelle*, **21**, 10-15.

Cabré, M. T. (2001): «Sumario de principios que configuran la nueva propuesta teórica», in M. T. Cabré, eta J. Feliu (ed.), *La terminología científico-técnica: reconocimiento, análisis y extracción formal y semántica*, Institut Universitari de Lingüística Aplicada, Universitat Pompeu Fabra, Barcelona, 19-25.

Cabré, M. T. (2003a): «Theories of terminology. Their description, prescription and explanation», *Terminology*, **9** (2), 163-199.

- Cabré, M. T. (2003b): «Terminología y normalización lingüística», in X. Alberdi; I. Ugarteburu eta P. Salaburu (ed.), *Espezialitate hizkerak eta terminologia jardunaldiak*, UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua, Bilbao, 11–25.
- Elhuyar (2009): *Zientzia eta Teknologia Hiztegi Entziklopedikoa*, Elhuyar, Donostia.
- Estopà, R. eta Lorente, M. (2008): «Los paraterminos en la extracción automática de terminología» in *GLAT2008: Terminologie, discours, technologie, acteurs sociaux*. ENT Bretagne, Brest, 35-47.
- Estopà, R. eta Lorente, M. (2010): «De los aspectos semántico-pragmáticos de los paraterminos» in *GLAT-LISBOA2010: Le multiculturalisme et le rôle des langues spécialisées*, 301-316.
- Euskaltzaindia (2012): *Euskaltzaindiaren Hiztegia*, Euskaltzaindia, Elkar eta Elhuyar, Bilbo eta Donostia.
- Fishman, J. (1968): «Some contrasts between linguistically homogeneous and linguistically heterogeneous polities», in J. A. Fishman; Ch. A. Ferguson eta J. D. Gupta (ed.), *Language Problems of Developing Nations*, John Wiley and Sons, New York, 53-68.
- Gambier, Y. (1987): «Problèmes terminologiques des pluies acides: pour une socio-terminologie», *Meta*, **32** (3), 314–320.
- Guz, W. (2009): «English Affixal Nominalizations Across Language Registers», *Poznań Studies in Contemporary Linguistics*, **45**(4), 461–485.
- Iturrioz, J.L. (2000): «Diversas aproximaciones a la nominalización. De las abstracciones a las macrooperaciones textuales», *Función*, **21-24**, 32-140.
- Lersundi, M.; Zabala, I. eta Elordui, A. (2008): «Aditzetiko izenen emankortasunaren azterketa morfopragmatikoa euskarazko corpus orokor eta berezitueta», in X. Artiagoitia eta J. A. Lakarra (ed.), *Gramatika jaietan Patxi Goenagaren omenez, ASJUren gehigarriak*, LI, EHUKo Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 491-506.
- Milroy, J. eta Milroy L. (1991): *Authority in language. Investigation language prescription and standardization*, Routledge, London & New York.
- Pustejovsky, J. (1995): *The Generative Lexicon*, The MIT Press, London /Cambridge.
- Ricento, Th. (2000): «Historical and theoretical perspectives in language policy and planning», *Journal of Sociolinguistics*, **4** (2), 196-213.
- Sager, J. C. (1990): *A practical course in terminology processing*, John Benjamins Publishing Company, Amsterdam / Philadelphia.
- San Martín I.; Ezeiza J. eta Zabala I. (2010): «Aditzetiko izenak erregistro bereizle gisa: corpus espezializatu baten azterketa morfopragmatikoa», in X. Alberdi eta P. Salaburu (ed.), *Euskararen garapena esparru akademikoetan*, UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua, Bilbao, 224-242.
- Sasse, H-J. (2001): «Scales between Nouniness and Verbiness». in M. Haspelmath; E. König; W. Oesterrich eta W. Raible (ed.), *Language Typology and Language Universals. An International Handbook* Vol. I, Mouton de Gruyter, Berlin / New York, 495-509.
- Simone, R. eta Masini, F. (2009): «Support Nouns and Verbal Features: a case study from Italian», *Verbum*, **29** (1/2), 143-172.
- Simone, R. eta Masini, F. (2014). «On Light Nouns», in: R. Simone eta F. Masini (ed), *Word Classes. Nature, typology and representations*, John Benjamins Publishing Company, Amsterdam & Philadelphia, 51-73.
- Temmerman, R. (1997): «Questioning the univocity ideal. The difference between socio-cognitive Terminology and traditional Terminology», *Hermes, Journal of Linguistics*, **18**, 51-90.
- Temmerman, R. (2007): «Approaches to terminology. Now that the dust has settled...», *SYNAPS*, **20**, 27-36.
- Wüster, E. (1979): *Einführung in die Allgemeine Terminologielehre und Terminologische Lexikographie*, Springer, Viena-New-York [Itzulpena: M. T. Cabré (ed.) (1998). *Introducción a la teoría general de la terminología y a la lexicografía terminológica*, Institut Universitari de Lingüística Aplicada, Universitat Pompeu Fabra, Barcelona.]

Zabala, I. (2003a): «Hitz elkartuak eta terminologia: zelulanitz bezalako adjektiboen egokitasuna aztertzeko bi ikuspegi», in X. Alberdi eta I. Ugarteburu (ed.), *Espezialitate-Hizkerak eta Terminologia: Jardunaldiak*, UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 223-236.

Zabala, I. (2003b): «Causation and semantic control. Diagnosis of incorrect uses in minorized languages», in B. Oyharçabal (ed.), *Inquiries into the lexicon-syntax relation in Basque. ASJU*, XLVI, 255-284.

Zabala, I. (2017) «Light Nouns and Term Creation in Basque», *Terminàlia*, **15**, 27-37.

Zabala I. eta Elordui, A. (2006): «Specialized discourse and the Linguistic System of Basque», I. Laka eta B. Fernández (ed.), *Andolin gogoan. Essays in honour of Professor Eguzkitza*. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua, Bilbao, 895-914.

Zabala I. eta Elordui, A. (2010): «Nominalizazioa estrategia diskurtsibo gisa: corpus akademikoaren azterketaren beharra», in X. Alberdi eta P. Salaburu (ed.), *Euskararen garapena esparru akademikoetan*, UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua, Bilbao, 224-242.